



LEHEN HEZKUNTZA – 1 ZIKLOA

Lehen Hezkuntza da Haur Hezkuntza osteko etapa, eta 6-12 urte arteko ikasleak hartzen ditu. Etapa honek adin-tarte zabala hartzen duenez, 3 ziklotan banatzen da. Gure ikastolako ikasleek Sakramentinoetan hasten dute etapa berri hau, baina 3. ikasturtean Usabalgo egoitzara aldatzen dira eta han bukatzen dute etapa.

Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa:

Etapa bakoitzak bere ezaugarri, metodologi eta lan egiteko moduak dauzka. Etapa aldaketan, espazio berriak eta pertsona berriak ere izango ditu bere ibilbidean haurrak. Beraz, argi dago, haurrak, etapa aldaketa horretan egokitzapen ugari egin behar dituela. Horretaz jabetuta, trantsizio hori ahalik eta leunena egiteko ahalegina egiten da haurrak lehenengo mailara ailegatzean.

Trantsizio horretan, garrantzi handia izango du haurrak gelan izango duen pertsona erreferentearekin (irakaslearekin) **atxikimendu ziurra** egitea; lotura afektibo ziurra, konfiantzaz beterikoa. Baita bere buruarengan eta ingurukoengan konfiantza hartzen joatea ere. Maila eta etapan izango dituen haur eta erreferentziako pertsonengan, esaterako. Testuinguruan konfiantza edukitzea ere ezinbestekoa izango da haurrak bere gaitasun guztiak garatu ditzan. Horretarako, ikasturte hasierako lehen bi asteetan **familiarizazio jarduerak** deiturikoak gauzatuko dira.

Egunaren antolamendua

Eguna bi gelak elkarrekin hasten dute Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako haurrek **aktibazioa** deritzon jarduera batekin. Helburua, burmuineko bi aldeak koordinatuz, haurra zentratzera bideratzea izango da.

Horren ostean talde osoaren harrera momentua izango da. Jarraian, irakasgai ezberdinen lanketak gauzatuko dira talde bakoitzak duen ordutegiaren arabera.

Ikaskuntza aktiboa

Haur bakoitzak berarekin dakartzan gaitasunak ahalik eta ondoen garatzeko, irakasti eta ikasteko baldintza egokienak eskaintzea garrantzitsua da.

Gauzak horrela, haurrak egon behar du bere ikaskuntzaren erdigunean; prozesu horretan eraikitzailea izan behar du.



Horretarako, Txanela Proiektua da Lehen Hezkuntzako ikas materialetako bat. Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua da, euskalduntasunetik abiatuz, kultura unibertsalerako bidea egiten duena, zehar lerro ezberdinak lantzen dituena eta irizpide metodologiko ezberdinak lantzen dituena.

Txanela, unitate ezberdinetan antolatu dago eta unitate bakoitzaren amaiera egiten den proiektuak garrantzi handia dute; haurra, proiektu horietan parte hartzaile zuzena delarik. Proiektuak globalizatuak dira, bertan hizkuntza konpetentzien bidez lantzen duelarik.

Proiektu hauetan haurraren motibazioak duen garrantzia jakinik, berau mobilizatzeko ahalegin berezia egiten da proiektuaren hasera fasean, aurkezpen eta aurre ezagutzak aktibatzerakoan.

Ikastola eta komunitatearen arteko gertutasuna garrantzizkoa jotzen da; ikastola eta etxea bide beretik joatea bi aldeetatik konfiantza hori bermatzea da helburu. Horrek zuzen zuzenean eragingo duelako haurraren ziurtasun eta ongizatean. Honekin batera familien presentzia gelan ezinbestekoa da eta proiektuetan parte hartze zuzena izatera gonbidatzen dira.

Matematika arloan eskuetatik abiatutako lanketa garatzen da, ondoren abstrakziora iritxi ahal izateko. Horretarako matematikako arlo ezberdinei dagozkien material manipulatio ezberdinak daude eskura gelan. Ondoren errepresentazio bidea jorratzen da beste baliabide batzuk medio direla, liburuak ala fitxak.

Ikaskuntza aktibo honen baitan gelak ere dinamikoak dira, altzari polibalenteak daudelako geletan, honek bakarka, talde txikian, talde handian espazio librean eta abar jarduteko aukera anitzak eskaintzen ditu. Bestalde, arlo artistikoari garrantzi berezia ematen zaio horretarako proposa den espazio eta materialak eskainiz.

Plazerrezko irakurketa momentuak ere L.H 1. Zikloan badute tokirik, horretarako giro goxo eta atsegina eskaintzen duen gune eta liburuak eskaintzen direlarik.

Gaitasunen eraikuntza lan honetan haurrak bere bidea eraikitzeke bestelako tailerrak eskaintzen dira. Arlo , interes eta gaitasun ezberdinak garatzeko lau tailer sortu dira: Mate-jolas, Hitzak jolas, Gu zientzialari eta Gure mundua. Tarte hauetan haurrak erabakitzen du zertan eta norekin ibili.

Gorputz heziketak ere badu bere lekua. 1.mailan Psikomotrizitatea egiten da eta 2.mailan Gorputz Hezkuntza.



Profesional ekipoa

Haurrak Ikastolako ibilbide guztian zehar irakaslea izango du bide lagun. Akonpainamendu hori egiteko etengabeko formazioa jasotzen ari den profesional ekipoa izango du inguruan. Haurra bere osotasunean hezi, hazi, bizi dadin, arlo kognitibo, afektibo, sozial, emozional eta fisikoa ikusi eta ulertuko duen begirada profesionalarekin.